

Prentsa oharra

Nota de prensa



Udaltzaingoak eta Ertzaintzak uda seguru bat izateko gomendio-kanpaina egin dute

Udaltzaingoak donostiarrek animatu ditu salaketak online egiteko kanala erabiltzen jarraitzera

“Uda segurua pasatzeko gomendioak”. Hori da Ertzaintzak eta Udaltzaingoak martxan jarri duten kanpaina, hiritarrei segurtasun gomendioak emateko, hain zuzen ere, lapurretak edo pertsonentzat arriskutsuak izan daitezkeen jarrerak ekiditeko gomendioak.

Hiri-segurtasun, Babes Zibileko eta Suhiltzaileetako zinegotzi Martin Ibabek, Udaltzaingoko hainbat agentez lagunduta, Ertzaintzarekin elkarlanean prestatutako kanpainaren berri eman du gaur, Udaltzaingoak udan hondartzen inguruan eta asteburuetan zein jaietan aisialdi eremuetan jartzen duen furgoneta baten aurrean.

Kanpaina hiriko hainbat lekutan kokatzen diren iragarki euskarritan ikusi ahal izango da, besteak beste, termometroetan edo Dbus udal autobusetako telebistetan, baita Udalaren gizarte-sare ezberdinetan. Helburua da, kontuan izan beharreko hainbat gomendio ematea leku jendetsuetan objektu pertsonalak gainean eramateko orduan, oportetara joateko orduan edo lapurreta edo eraso bat jasanez gero egoki jarduteko.

Hortaz, kanpainak donostiarrei gomendatzen die diru-zorroa edo telefono mugikorra agerian ez eramateko; kutxazain automatikoetatik dirua ateratzean bakarrik ez egoteko; lapurreta baten ondoren, kreditu-txartelak eta telefono mugikorrak baja emateko; edo edozein larrialditan eo informazioa eskatzeko agenteengana jotzeko.

Era berean, eta udan zehar auzo ezberdinetako jaietara joango diren pertsonen zuzenduta, bi poliziek gomendatzen dute, ezezagunekin arreta handiz jokatzeko eta eskatzen dute alkohola arduraz kontsumitzeko eta alkoholdun edariak kontsumitu ondoren inoiz ez gidatzeko. Halaber, hiritarrei eskatzen diete, Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren oharrei kasu egiteko eta 112 edo 092 telefonoetara deitzeko baldin eta delituen bat ikusten badute.

Oporretara joaterakoa lapurretak ekiditeko gomendioak

Udaltzaingoak eta Ertzaintzak hainbat gomendio berezi sartu dituzte kanpainan oportetara joaterakoan etxebizitzetan lapurretak ekiditeko. Horrenbestez, bi poliziek, besteak beste, honako neurriak hartzeko gomendatzen dute: Dirua agerian ez uzteko eta kreditu txartelak eta horien gakoak leku bereizietan gordetzeko; postontzia sarri husteko; gizarte sareetan bidaia-planik, helbiderik edo datu pertsonalik ez argitaratzeko; etxean norbait dagoela pentsarazteko neurriak hartzeko; eta etxeko itxiera sistemak aztertzeke eta indartzeko.

Salaketak online

Azkenik, Martin Ibabek gogorarazi du, Udaltzaingoak salaketak online egiteko kanala duela, hain zuzen ere, polizia-etxera joan gabe B@kq ziurtagiria erabilita salaketa jartzeko kanala. 2023.urteko udan martxan jarri zen zerbitzua, Udaltzaingoak

Prentsa oharra

Nota de prensa



eskaintzen dituen zerbitzuak modernizatzeko prozesuaren barruan. Ondorioz, salaketak ziurtagiri digitala erabilia sinatzeko aukera sartu zen, eta beraz, ez da beharrezkoa polizia-etxera joatea, baldin eta segidako delituen gaineko salaketa jarri nahi bada:

- Diru zorro, poltsak edo horrelakoen lapurreta
- Bizikleten lapurreta
- Saltokietan edo etxebizitzetan lapurreta
- Ibilgailuen barrutik lapurreta
- Saltokietan edo etxebizitzetan kalteak eragitea
- Ibilgailuetan kalteak eragitea
- Objektuak galtzea
- Iruzurrak online

Ibabek adierazi du, zerbitzuak bi urte bete dituela eta gehienbat salatu diren delituak diru-zorro, poltsa edo horrelakoen lapurretak izan direla, baita bizikleten lapurretak, ibilgailuetan kalteak, objektuak galdu izana eta delitu informatikoak ere. 2023.urtean Udaltzaingoak 219 salaketa tramitatu zituen (ekainetik abendura). 2024.urtean berriz, bide honetatik jasotako salaketak 641 izan ziren (Udaltzaingoan jasotako salaketa guztien %6,5) – beste 15 salaketa ere jarri ziren, baina beste udal departamentutatik tramitatu beharrekoak ziren –. 2025ean, aldiz, orain arte 340 salaketa jarri dira kanal hau erabilia.

Horrenbestez, Hiri-Segurtasuneko, Babes Zibileko eta Suhiltzaileetako zinegotziak hiritarrak aipatutako delituen gaineko salaketak online bidez egitera animatu ditu eta segidakoa gogorarazi du: “Zerbitzu honen bitartez, donostiarren egungo bizimoduetara egokitu gara. Gure helburua da online bidez jasotzen diren salaketa kopurua handitzen joatea, izan ere, sistema azkarragoa da, bai salaketa egiteko, baita tramitazioa egiteko ere. Gure bokazioa, gertuko polizia izatea da, eta sistema honi esker Donostiarrengandik gertuago dagoen polizia gara”.

Donostia, 2025eko uztailak 16